

1

ELHUYAR

IRAILA 1974

R.S.V.A.P.-en Zientzi eraskina

ZUZENDARIA: *Luis Bandrés*

IDAZLARIA: *Andoni Sagarna*

ZUZENBIDEA: *Círculo de San Ignacio. - San Marcial, 26, bajo. - San Sebastián*

Euskal kulturagintzan ia dena egiteko dadukagula gauza jakina eta tamalgarria da. Sukaldeko girotik eta lagunartetik irtetzen garen bezain laster bide ilunetatik abiatzen gara, euskara lotsagarri geratzen zaigu batzutan. Are gehiago hizkera zehatz, garden, zorrotz bat behar den gaietan.

Gauza berari bizpahiru izen ezartzen badiogu eta izen batek, antzina-ko botikek bezala, denetarako balio badu, azkenean ez dakigu zer esaten ari garen ere.

Zientzia gaietan konkretuki ez daiteke inolaz ere Babel-go Dorreak handituz joan daitezen utz, hiztegi aberatsak, konzeptuen arlo osoa beregan dutenak behar ditugu, baina hori ez da aski.

Zientzi-euskara bat eraikiko badugu, piskana denok ados egon behar dugu, gaiak erabiltzeko ohitura bat hartuz, ohitura hori duen jende multzo ugari bat sortuz, edozein lekutako zientzilarik erabiltzen duen formulazioa eta euskara, batek bestea bortxatu gabe, uztartuz, e.a.

Hori dena nekez lortuko genuke hitz zerrenda luzeak asmatuz bakarrik; gehiago behar dugu.

Euskarari, zientzien plazara jalgi dadin, agerlekuak prestatu behar dizkiogu bere sortzaileek nolakoa den erakus diezaguten eta denon artean haiei lagun diezaiegun gero eta helduagoa, egokiagoa, apainagoa sortzen.

Asmo hauk denak hartzen ditugu gogoan ELHUYAR-en lehen zenbaki hau argiteratzean.

Hemen ikusiko dituzuen lanak ez dira denak maila berdinekoak, gaurko egoeran ikastoletako hurrei begira lanegitea beharrezko bada ere ez bait daiteke irakasleak gertatzeari edo ta profesionalek eguneroko lanetan dituzten premiei begiratu gabe gerorako aurrerabiderik sor.

Halere badakigu etxea teilatutik hastea ez dela egoki.

Denon laguntzarekin eta kritika zorrotz bat dela medio zientzi euskarari arnasa pixka bat eman diezaiokegula uste dugu.

Gure eskerrik beroenak lan hau haintzakotzat hartzen duten guztiei eta batez ere hain premiazkoa den diru laguntza eta babesa ematen diguten erakundeei.

ELHUYAR